

## 2025EKO AZAROAREN 3KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hiruan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 82 zenbakidun zerrenda, LAUROGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA HAMAIIKA euro ETA HIRUROGEITA BAT zentimokoa (85.311,61 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### II.- ARESOKO HAUR-PARKEKO JOLAS-EREMURAKO ESTALKI BAT ERAIKITZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko irailaren 9an egindako bilkuran, Areso kaleko haur-parkeko jolas-eremurako estalki bat eraikitzeko obrak, prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagozkion baldintza teknikoak eta administrazio-baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profileen argitaratu zen 2025eko irailaren 11n eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, lau proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

- CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.
- CARPAS ZARAGOZA, S.L.
- GRUPO COSTA BLANCA HTS SL
- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.

Aurkeztutako enpresak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa eta balio-iritziei lotutako irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen zituen "A" artxibo elektronikoa 2025eko urriaren 2an, eguerdiko 12:30etan, ireki zen.

"A" artxibo elektronikoaren dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako enpresak aurkeztutako balio-iritziei lotutako irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioak lortutako puntuazioa ondorengoa da:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>Laneko programa eta obra plana (15 puntu)</b> Programa de trabajo y plan de obra (15 puntos)
CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.	11,00
CARPAS ZARAGOZA, S.L.	15,00
GRUPO COSTA BLANCA HTS, S.L.	4,25
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.	15,00

2025eko urriaren 8an, eguerdiko 12:00etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, proposamenak balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuta lortutako puntuen berri eman zen, eta, jarraian, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuen "B" artxibo elektronikoa ireki zen.

Hauek izan ziren onartutako enpresek aurkeztutako eskaintzak:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>Proposamen ekonomikoa</b> Propuesta económica	<b>Berme-epea</b> Plazo de garantía
CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.	366.535,99 €	2 urte / años
CARPAS ZARAGOZA, S.L.	328.000,00 €	5 urte / años
GRUPO COSTA BLANCA HTS, S.L.	293.800,00 €	5 urte / años
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.	354.270,13 €	5 urte / años

Enpresa lizitatzailleek lortutako puntuazioak ondorengoak dira, handienetik txikienera:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>Prop. teknikoa</b> Prop. técnica	<b>Prop. ekonomikoa</b> Prop. económica	<b>Bermea</b> Garantía	<b>GUZTIRA</b> Total
CARPAS ZARAGOZA, S.L.	15,00	59,81	15,00	89,81
GRUPO COSTA BLANCA HTS, S.L.	4,25	70,00	15,00	89,25
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.	15,00	51,98	15,00	81,98
CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.	11,00	48,33	3,75	63,08

Ondorioz, eta lehen sailkatua CARPAS ZARAGOZA, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzailleen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

CARPAS ZARAGOZA, S.L.-k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak CARPAS ZARAGOZA, S.L.-ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

**Lehena.-** Areso kaleko haur-parkeko jolas-eremurako estalki bat eraikitzeko obrak CARPAS ZARAGOZA, S.L.-ri esleitzea, HIIRUREHUN ETA HOGEITA ZORTZI MILA euro (328.000,00 €) gehi dagokion BEZ prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

**Bigarrena.-** Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

### III.- BIDEO ZAINZAKO SISTEMA BAT INSTALATZEA LAZKAOKO TRAFIKOAREN KONTROL, ZAINZA ETA DIZIPLINARAKO.-

Ikusirik Lazkaoko Udalak ibilgailuen trafiko-bolumen handia jasaten duela, ez bakarrik auzotarren zirkulazioagatik, baita bisitariengatik eta kanpoko ibilgailuengatik ere, eta, beraz, trafikoa aurrez aurre arautzeko eta kontrolatzeko ohiko moduak ez direla nahikoak;

Aurrerapen teknologikoen bide-segurtasuna indartzen eta hiriko trafikoaren kudeaketa hobetzen laguntzen duten tresnak izatea ahalbidetzen dute;

Kontuan hartuta Segurtasun Indar eta Kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duen abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoaren Zortzigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duela bideokamerak instalatzeko eta erabiltzeko aukera dagoela trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearekin eta arlo horretako araudi espezifikoarekin bat etorritik;

Era berean, apirilaren 16ko 596/1999 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarrean xedatutakoa ikusi da. Errege Dekretu horrek aipatutako Lege Organikoa garatu eta betearazteko Erregelamendua onartzen du, eta ezartzen du irudiak hartzeko eta erreproduzitzeko gailu finkoak instalatzeko agintzen duen ebazpenak identifikatu egin beharko dituela eragindako bideak, aplikatu beharreko segurtasun-neurriak eta horiek zaintzeko ardura duen organoa.

Kontuan hartu da, halaber, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa – bereziki (EB) 2016/679 Erregelamendua (DBEO), abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DPBEDBLO) eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legea –, datu pertsonalen tratamenduari buruzko bermeak eta betebeharrak arautzen baitituzte, bai eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako gardentasun-printzipioa ere;

Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Bideo-zaintzako sistema instalatzea.

Udalaren titulartasuneko bideetan trafikoa kontrolatzeko, zaintzeko eta diziplinatzeko bideo-zaintzako sistema bat instalatzea onartzea, apirilaren 16ko 596/1999 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarrean xedatutakoari jarraiki.

Kamerak puntu hauetan kokatuko dira:

KAMARA ZENBAKIA	LEKUA (HELBIDE ZEHATZA)
1	Hirigoien Kalea 87 20210 Lazkao (Gipuzkoa) (43 02707323541127 -
2	GI-2120 errepidea 20210 Lazkao (Gipuzkoa) (43 03932098505044 -
3	Hiribarren Kalea 20210 Lazkao (Gipuzkoa) (43 04369110115643
4	San Prudentzio Kalea 20210 Lazkao (Gipuzkoa) (43 029519641851586 -

#### **BIGARRENA.** Tratamendu Jardueren Erregistroa

DPBEDBLOaren 31.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Tratamendu Jardueren Erregistro hau inskribatzen eta argitaratzen da:

TRATAMENDUA: BIDEOZAINZA TRAFIKOAREN KONTROLA	
Tratamenduaren arduraduna Arduradunaren harremanetarako datuak	Lazkaoko Udala Euskadi Emparantza 1, 20210 Lazkao (Gipuzkoa)
Babeseko ordezkariaren izena Babes ordezkariaren kontaktu datuak	udala@lazkao.eus
Tratamenduaren jarduera	Bideozaintza, trafikoaren kontrola
Tratamenduaren helburuak	Segurtasuna, bideozaintza eta trafikoaren kontrola
Interesdunen kategorien deskribapena Datu pertsonalen kategorien deskribapena	Ibilgailuak, herritarrak eta erabiltzaileak
Hartzaileen/lagapenen kategoriak	Segurtasun Indar eta Kidegoak (hala eskatuz gero)
Datuen nazioarteko transferentziak	Ez dira aurreikusten
Datuak gordetzeko epea	Hogeita bederatzi egun
Segurtasun-neurriak	Azken hogeita bederatzi egunetako segurtasun-kopia. Datu pertsonaletara sartzeko

Lege-oinarria	Euskadiko lokalak Legearen zortzigarren xedapen gehigarria 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, GFek bideokameren erabilera arautzen duena eta hura garatzen duen Erregelamenduaren Xedapen Gehigarri Bakarra (596/1999 ED) 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza
---------------	--

### **HIRUGARRENA.-Argitaratzea**

19/2013 Legearen 5.4 artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 31.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, erabaki hau eta Tratamendu Jardueren Erregistroa argitaratuko dira Lazkaoko Udalaren egoitza elektronikoa edo webgunean, irisgarritasuna, elkarrengarritasuna eta gardentasuna bermatuz.

### **IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-**

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

#### **Euskara ikasten ari direnei.-**

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 366 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

### **V.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-**

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

#### **- Merkatariei erosketak bonoengatik.-**

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko urrian martxan jarritako erosketak bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.525,00	631,25
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	4.675,00	1.168,75
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	1.080,00	270,00
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	910,00	227,50
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	985,00	246,25
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	2.285,00	571,25
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.000,00	250,00
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.560,00	390,00
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	225,00	56,25
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	900,00	225,00
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	290,00	72,50
GERRIKO SL	390,00	97,50
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	390,00	97,50
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	730,00	182,50
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	2.135,00	533,75
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	985,00	246,25
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	315,00	78,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.380,00</b>	<b>5.345,00</b>

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.